

# PENTSAMENDUAREN HISTORIA

## **2. GAIA: ERRENAZIMENDUA. ERREFORMA ETA ILUSTRAZIOA**

### **ERRENAZIMENDUA:**

Feudalismoaren gainbehera Europan hedatu→ Garai hau ezarri, modernotasunaren oinarriak ezarriz [XV-XVI]

- Mendebaldearen hedapen geografikoa (konkistak...)
- Iraultza zientifikoa: denborarekin zientzia erdigune bihurtu
- Ikuspegi indibidualista gailendu: norbera zentroa
- Balio batzuei kultura: askatasuna eta berdintasuna
- Estatu moderno zentralista (...) sortu
- Klase sozial berri baten sorrera hirietan: burgesia.
  - Burgesiak ez zuen botere politikorik (bakarrik nobleziak), baina ekonomikoa bai
    - a. Botere politiko nahia
    - b. Hiriko bizitzako estilo berria, bizitza-tradizionalarekin hautsiz
    - c. Dena neurtu/zenbatzeko nahia. Horregatik arlo hauetan garapen handia (adib. kontabilitatea)
    - d. Lan etika berria (protestantismoarekin garatuko dena). Lana dagoeneko ez da zigorra, arrakasta izateko bidea baizik
    - e. Indibidualismoaren garaipena + lan indibidual berriak
    - f. Mugikortasun soziala (promesa eta uste berria mailaz igotzea izango da)
- Filosofia→ humanismoa/antropozentrismoa
- Politika→ Proto-abertzaletasuna: botere politikoa legitimizatzeko "herria" ardatz, eta sentimendua sortu (Adib. Herbeerak, Katalunia)
- Ekonomia→ Merkantilismoa: interbentzionismoa barne-ekonomia + esportazioak bultzatzeko: merkatu nazionalak gailentzeko

### **NIKOLAS MAKIAVELO** (1469-1527)

#### **Bizitza**

Florentziarra → Florentziako estatuan hainbat postu izan zituen (honek politika barrutik ezagutzeko aukera eman zion), baina aholkulari politiko bezala gailentzen da

#### **Testuinguru politikoa**

- Erdi Aroko ordena politikoaren gainbehera (Aita santuaren gainbehera ordena politikoan) → Eliza estatuak beste estatu bat gehiago bilakatu
- Egitura politiko berriak: zentralizatu eta sendoak. Adib. Espainia, Frantzia
- Sektoreen arteko aliantza berriak: monarkia zentralista eta burgesiaren artean, noblezia gainditzeko eta boterea kentzeko
- XV. mendean dagoeneko Frantzia estatu moderno eta zentralista izango da
- Estatuak ezartzen hasiko da, baina nazionalizazioa ez da politikoa izango
- Italiako testu inguru politikoa (kulturalki gailenduko dira baina ekonomikoki ez): Florentziak errepublika, Veneziako errepublika, Napoleseko erresuma, Milan herria, Elizaren herriak

### **Makiavelismoa** “Helburuak bitartekoak justifikatzen ditu”

- Interpretazio soziala → maltzurkeria eta moraltasun ezari lotuta
- Teoria sakonean, bi teoria/interpretazio
  1. Negatiboa → Estatu-arrazoiaren sortzailea: Estatu kontzeptua garrantzitsua (esanahi ezberdinekin), eta estatu modernoaren printzipioak aipatu zituen Estatuaren superbibentzia beste guztiaren gainetik kokatu zuen
  2. Positiboa → “Errepublikarren liburua”- Rousseau: herriari erakusten dio botereak nola funtzionatzen duen, ikuspegi positiboa hartuz

### **PRINTZEA** (1513 idatzi, 1532 publikatu)

- Errealismo politikoa → Errealitatea/ekintza politiko puruak aztertzen ditu.
  - Ez ideala edo hori justifikatzeko garatutako teoriak
  - Helburua lortzeko bitarteko politiko eta militarrek behar dira, ez morala edo erlijioa
- Arrakastaren ikuspuntutik aztertzen ditu ekintza politikoak
- Boterearen garrantzia aztertzen du
- Gizakia berez ez da gaiztoa, boterearekiko harremanak bizioa gainditzen du, horrela gizakiak gaizto izateko joera hartuz

### **1. ZERGATIK JAZARTUA?**

- ❖ Printze berria proposatu → odolarengatik ez, gaitasunarengatik izatea boterea
- ❖ Bertute berria proposatu → garaiko bertute kristaua zalantzan jarritz
- ❖ Elizaren arauekin (10 mandamenduak) apurto → elizatik kanpo hausnarketarik ez
- ❖ 1559 kontraerreforma: printzea lurralde katolikoetan debekatu. → ondoren lurralde protestanteetan ere jazarri

### **2. USTEAK/ MITOAK**

- ❖ Zientzia politikoen aitatzat hartu → ez, metodo zientifikoa erabili ez zuelako
- ❖ Estatu teoriaren aitatzat hartu → estatu teoria modernoa geroago sortu zen. Bera estatu premoderno batetaz ari da (estatu = printzearen ondasuna)
- ❖ Nazionalista italiarra zela → Risorgimentoan (1870) horrela erabili zen, aldarrikapen nazionalistari legitimizazio historikoa emateko, baina ez da errealia.

## **ERREFORMA PROTESTANTEA, INGALATERRAKO IRAULTZA, HOBBS**

- Erlijio gerrak nagusi → *Katolizismoa/protestantismoa*. Pentsamenduak eraldaketa handia protestantismoak: indibiduo bakoitzak interpreta dezake errealitatea. Bakoitza jainkoarekin jar daiteke harremanetan bere hizkuntza baliatuz, etab. → lana egitea bultzatu, beraz kapitalismoa ere
- Protestantismoa: hasieran eliza katolikoa erreformatzeko asmoa bakarrik zuten
  - a. Martin Luther (1483-1546, alemania)
    - Eliza katolikoarekiko haustura (1519)
    - Banaketa honek bat egin zuen printze germaniarren interesekin

- Banaketa aurretik biblia alemanera itzuli, hasiera emanaz aleman modernoari → inprentari esker gero zabaldu. Grama./ortog. oinarria

b. Joan Kalbin\*\*\* (1509-1564) → kalbinismoa

- Frantsesa, baina Genevatik zabaldu ideiak → diktadura erlijiosoa ezarri
- Erlijio gutxiengoa bilakatu, horregatik kulto askatasuna eta tolerantziaren defendatzaile bihurtu (nahi gabe, beharrek eskatuta)
- Moral ekonomikoa → Max Weberrek aztertu “etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua”
  1. Kalbinistak jainkoaren aurrean bakarrik sentitu, konfesio aukerarik ez zutelako
  2. Eguneroko lana → kristau onaren eredy. Aszetikotasun produktiboa bultzatu
  3. Kapitalismoaren zabalpenari justifikazio erlijiosoa + azkartu Europako prozsua → maileguak izateko aukera zuten

c. Adar ezberdinak zabaldu Europatik (Higanotak...)

- Katolizismoaren erantzuna → Kontraerreforma (kontserbadoreagoa)
- Ondorioz, erlijio-gerrak (+ garai honetan nekazari matxinadak ere eman ziren)

PROTESTANTISMOA → eliza ezberdin asko (garrantzitsuenak:)

- a. Anglikanismoa: estatala, instituzionala, “nazionala”.  
Henrike VIII eliza honen buru
- b. Puritanismoa: Eliza anglikanoa protestante bihurtu nahi zutenak, aldaketa gehiago egin nahi zituzten ez bakarrik hierarkian.  
Oso zatituta: independenteak, episkopalak...(burgesia berrian eragin handia → beraien elizaren autonomia defenditzeagatik → tolerantziaren defendatzaile bihurtu (honen interpretazio ezberdinak egin diraç9

ARDATZ POLITIKOA:

- Agintea: erregea + parlamentua
  - a. Monarkia: monarkia + nobleziaren artean arrakasta
  - b. Parlamentarioak: legea + parlamentua erregearen gainetik zegoela defendatu. Nagusiki: puritanoak (baina denetarik zegoen). Parlamentarioak oso nahastuta talde erlijiosoetan.
    - New model army (Cromwell-ek gidatuta): ideia ideologikoen mugitatu armada (1649-1660) errepublikaren alde borrokan. Uneren batean errepublika ezartzea lortu, baina azkenean galdu (talde txikiak, berrikuntza politikoekin)
    - Levellers: errepublika + sufragio unibertsal maskulinoa aldarrikatu
    - Diggers: erradikalenak. Eskubide politikoen gain, berdintasun sozio-ekonomikoen hitz egin. → Iraultza loriatsua → Erdibideko garaipena lortu: monarkia parlamentarioa.

## **THOMAS HOBBS** (1588-1679)

Ingeles monarkikoa, baina salbuespenekin: monarkia justifikatu baina ez beste monarkek egiten zuten bezala (legitimazioa ez dago jainkoan) → Horregatik baztertua

### **LEVIATAN** “estatuaren ikuspegi gordina”

- a. Monarkismotik kritikatu, baina liberalismo demokratikoak erabili
- b. Indibidualista, horrela justifikatuz orden publikoa (bakoitzarentzat ona dena egin)
- c. Makiavelorekin lotura, gizakiaren ikuspegi ezkorragatik, gizakiaren egoismoa boterearekiko
- d. Makiavelok aztertu zuen errealitatean politikak nola funtzionatzen zuten, Hobbesek nola izan beharko lukeen eraginkorra izateko
- e. Ez da idealista, ez duela utopia bati buruz hitz egiten, baina hala ere ez da errealista → bere eredu planteatu (nola izan behar du gobernuak?)
- f. Gobernu baten arrakasta bere mantentzeko eraginkortasunarekin neurtu → eraginkortasunak legitimitatea eman → kontratu soziala apurtzean, zigorra ezinbestekoa
- g. Lege naturalak: (legeen arteko sailkapena egin)
  - Lege naturalak: Garrantzitsuan → giza autokontserbaziorako joera (ez hiltzekoa) → Bere teoria politikoa ardura horri erantzutera bideratu (nola antolatu komunitate politikoak lege naturaletik?)
  - Eskubideak / zuzenbidea
- h. Hobbes korrante guztietan baliatua:
  - Teoria kritikotik → kontratu sozialaren helburua argi uzteagatik
- i. Gizartea gobernu eta estatua parekagarriak. Denek elkarren beharra (gobernuak ordena mantendu gizartean, elkar suntsi ez daitezen; horregatik estatuaren borondatea bakarrik existitzen da)
  - Zuzenbidea / moralia estatuaren borondateatik erakarri

## **ILUSTRAZIOA/ BRITANIAR INDIBIDUALISMOA**

- XVII. mendean hasi, XVIII. mendean hedatu → Ipar Amerikako iraultza (1783) + Frantziako Iraultza (1789) + Haitiko iraultza (1791-1804) → Modernitatearen sorrera
- Politikoki gailendu → despotismo ilustratua; ideia politiko/ sozial berrien arteko eta agintarien arteko konpromezua (ideia ilustratuak + absolutismoa) baina herriaren parte hartzerik gabe
  - Sortuko diren kontraesanak hain handiak, ez duela asko iraungo: Iraultza liberalak
- Europako kontzientziaren krisia. Ilustrazioaren eraginez:
  1. Zientzia esperimentalen gorakada → garrantzi handia
  2. Sekularizazio prozesua → elizaren boterea zalatzen jarri (↓)
  3. Burgesiaren zabalkuntza gizartean
- Ilustrazioa ez zen indibiduala izan, pentsamendua eta zientzia helburu zuten guneak ziren (eztabaida-taldeak, entziklopedistak, akademiak...)
  - Arrazionalismo militatea garatu
  - Giza ahalmenen esperientzia
- Ilustrazioaren bidez erlijio gerrek European irekitako etapan parentesia:

- Errenazimenduko joerak itzuli + modernitateko ideia-gakoak zabaldu:
  1. Progresoa: beti zerbait hobea dator
  2. Arrazoiaren indarra
- Pentsamendu politikoan:
  1. Jainkoa ez da zentroa
  2. Hobbesetik aurrera gutxienez antolaketa politikoa ez da naturala, beraz hausnartu daiteke (+liberalismoa / marxismo konfrontazioa geroago)
- Britaniar indibidualismoa:
  1. Britaniako iraultxaren ostean → monarkia parlamentarioa, ideia nahiko “liberalekin” eta ideia berriak garatzeko aukera
  2. Politika/erlijioa harreman forma berezia hartu “tolerentzia-legea” onartu ostean → Sinesmen erlijioso ezberdinen koexistentzia + erlijioak utziko dio politikaren oinarri izateari
  3. Indibidualismoa garatu:
    - a. Gizakia bere loturetatik at pentsatuta (familia, erlijio...)
    - b. Gizabanakoa zentroa
    - c. Indibidualismoa (ilustrazioaren) eskutik → liberalismoa
- Ilustrazioa/ indibidualismoa → liberalismoaren pentsalariak
  - John Locke
  - David Hume
  - Adam Smith
  - Montesquieu  
(Frantzia, Ingalaterra, Eskozia)

## LOCKE

- Liberalismoaren aitatzat → Jabetza pribatua
  - a. Ez da legitimatu behar
  - b. Ideien oinarrian kokatzen du
- Iusnaturalista → Lege naturalen inguruan egin planteamendua (egitura politikoen lege horien bete behar dituzte)
  - Lege naturalaren ideia ez da analisi sakona → teoria politikoaren justifikazioa
- Naturazko egoera → gizarte politikoa → gizarte zibila
  1. Askatasuna + berdintasuna
  2. Botere patriarkala
  3. Jabetza pribatua
 Horrela harmonia lortuko da → Instituzio meheak justifikatzen dira horrela
- Gizarte politikoa: “naturazko egoera bermatzeko” → Eskubide batzuei uko egin: borondatea gizarte politikorako  
(Hobbesekin konparatuz → Hobbesei ikuspegi negatiboa. Kaosa > anarkia)
  - Estatuak:
    - Legeak ezarri → naturazko egoera bermatzeko
    - Eskubideak bermatu + mugatu → naturazko egoerako funtsesko eskubideak bermatu: jabetza pribatuari lotutakoak
  - Kontratu soziala
    - Behin betikoa → Indibiduo berriek, gizarte politikoan sartzeagatik, zuzenean onartu kontratu soziala, horregatik betirako da
  - Jabetza pribatua → ukazina (egoera naturalekoa, estatua baino lehenago)

- Botere politikotik aldentuta → Liberalismoan oinarritzkoak izango diren ideiak ondorioztatu.
  - a. Jabetza pribatua eskubide naturala da
  - b. Subiranotasuna herriarena da (ez errege, ez jainkoarena) → Ondoren, “nazioarena”; (beraz, herritar guztiak berdinak??)

### **MONTESQUIEU - METODO SOZIOLOGIKOA. BOTERE BANAKETA** (1689-1755)

Filosofo eta idazle frantsesa → asko idatzi (historia, “soziologia...)

Pentsamenduaren helburuak:

1. Gobernuaren teoria soziologikoa eratzen saiatu zen → gizarte baten ezaugarriek bere gobernuarekin duen lotura aztertu zuen
2. Askatasun politikoa → absolutismoari aurre egitea Frantzian [zehaztu nahi zuen ze baldintza legalek ahalbidetzen zuten askatasun politikoa]

#### **Metodo soziologikoa**

- Gizarte ezaugarriak ulertu behar dira, sortzen zuten gobernu eta zuzenbidea ulertzeko → hainbat faktorek azaltzen dute gizartea (pentsamendu faktoriala)
- Soziologiaren aitzindaria; ideia klabeak ezarri zituen soziologia garatzeko
- Bereganatur zientzien eragina nabari zen → bere ustez gizakien munduak berezko arrazionalitatea du (horregatik zientziaren objektu)
 

Idea honen formulazio modernoa egiten lehena (aurrekariak: Aristoteles, Makiavelo, Hobbes)
- Taldea egin:
  1. Probidentzialismoa → gizarte dinamiken oinarrian arrazoi erlijiosoak
  2. Hobbesen planteamenduarekin → gizarte dinamiken oinarrian giza-borondatea
- Giza mundua aztertzeko datu eta instituzio objektiboak aztertu behar dira (gizakien borondatetik kanpo dagoena) → Egitate sozialak (Durkheim)
 

“Tipo idealak” (Max Weber)

- Errealitatea ulertzeko orokortzeak egin behar dira, errealitatean berez ulertzen ez direnak (nolabaiteko abstrakzioak dira)

#### **Botere banaketa**

- ❖ Ideia honen jatorrian Locke ingelesa dago baina Montesquieuk ezagutarazi zuen XVIII. mendean.
- ❖ Estatu bat gobernatzeko eredua → Absolutismoaren aginte pilaketaren aurrean, aginte politikoa hainbat erakunderen artean banatu behar dela dio; botere legegilea, botere betearazlea eta epaitzeko boterea.
- ❖ Estatu bakoitzean, hiru botere mota daude: botere legegilea, jendeen zuzenbideari dagozkion gaien botere betearazlea, eta zuzenbide zibilari dagozkion arazoentzako botere betearazlea.
  - Botere legegilea → printzeak edo magistratuak legeak egiten dituzten aldi baterako edo betiko, eta egindakoak zuzentzen edo indargabetzen ditu.

- Botere betearazlea → bakea edo gerra egiten du, enbaxadak bidali edo jaso, segurtasuna ezarri eta inbasioei aurre egiteko neurriak hartu. Estatuaren botere betearazlea.
- Zuzenbide zibilari dagokion arazoan botere betearazlea → delituak zigortu edo partikularren arteko gorabeherak epaitzen ditu. Epaitzeko boterea deritzo.
- ❖ Pertsona batek edo nagusien, nobleen nahiz herriaren gorputz batek hiru botereak balitu: legeak egitekoa, ebazpen publikoak exekutatzekoa, eta partikularren arteko delituak eta gorabeherak epaitzekoa.

### **ROUSSEAU - GIZA DESBERDINTASUNA. BORONDATE OROKORRA. ERLIJO ZIBILA.**

- Genevako (Suitza frantsesa); bere bizitza Frantzian egin zuen
- Bere aita apaiz kalbinista; familiaz familia, elite eta diruaren inguruan baina elitekoa izan gabe (desklasatu posizioa)
- Ideiak nahiko erradikalak; praktika moderatua → adib. korsikako altxamendu baten aurrean monarkia oso kontserbadorea proposatu zuen
- Alde erromantikoa; baina bereziki ilustratua zen (modernitatearen oinarriak ezarri)
  - Zientzia eta arteari buruzko ikuspegia aipagarria → progresoaren ideia zalantzan jarri; aurrerapen tekniko eta materialak eman arren gizakia ez da zoriotsuago + aurrerapen moral eta kulturala zalantzan jarri

#### **Giza desberdintasuna (posizio desklasatutik azaldu)**

- ❖ Jabetza pribatua → giza desberdintasunaren oinarri. Ezin da gizarte zibilik egon JP gabe baina ez da naturala (*horregatik liberalismoak, marxismoak.. baliatu Rousseau*)
- ❖ Naturazko egoera = egoera ideala, zoriotsua → JP ondorioz → Gizarte zibila = JP antolatu eta defendatzeko. Aberatsen mesederako, ez denon mesederako
- ❖ Jabetza pribatuaren alde negatiboak azaldu zituen, baina
  - Ez zuen JP gabeko gizartea defendatu/azaldu
  - Bere ustez ez zegoen atzera bueltarik, beraz ezin da abolitu
  - Sistema egokiago bat proposatu giza-desberdintasunak apaltzeko
    - Korsikako egoera kontuan hartuta → konstituzio proposamena, gizarte-desberdintasuna gutxitu. Adib. lur-komunak proposatu

#### **Pedagogia**

Pedagogiaren aitatzat; → (Baina seme-alabak ez zituen hezi)

- Hezkuntzan era autonomoan pentsatzen ikasi behar da, pertsonak garatzeko
- Goi-klaseekiko mesfidatia zen, eta ez zuen garaiko hezkuntzan sinisten
- Naturatik ikasi behar da
- Hezkuntzan indibidualismoa goratzen du

#### **Erljio zibila + borondate orokorra**

- ❖ Borondate indibidualek → borondate orokorra osatu (interes indibidualen gaintetik daude)
- ❖ Horretarako pertsonak era askean, berdintasunean bizi
- ❖ Baina borondate orokorra ideia abstraktua da, horretarako erlijio zibila proposatu, interes ezberdineko gizabanakoak batzeko

- ❖ Erljio zibilean → jainkoa = legekiko maitasuna. Horrela estatuaren zerbitzura (erlijio tradizionalaren oso ezberdina)